

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

724

118/2017 EBAZPENA, urtarrilaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Andoni Arcelay Salazar jauna Debagoiena Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente, berak hala eskatuta, lanpostutik kentzekoa.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 15eko 866/2015 Ebazpenaren bidez (apirilaren 22ko EHAA, 74. zk.), Andoni Arcelay Salazar jauna Debagoiena Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Andoni Arcelay Salazar jauna Debagoiena Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2017ko urtarrilaren 24tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen Hau jakinaraztea interesdunari, Debagoiena Erakunde Sanitario Integratuari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.